

## 16 – LA HORCA MENDATEA - OSMA (2017-11-25)

### EZAUGARRIAK

**DISTANTZIA:** 23,7 km.  
**DESNIBELA:** + 517 m. / - 849 m.  
**DENBORA:** 6 or. 15' - 6 or. 30'

La Horca mendatetik aterako gara (898 m). Mendixka hori da Burgosko Losa haranaren eta Arabako Valdegovía/Gaubea haranaren arteko muga. Alanbrehesi bat zeharkatuko dugu hasieran eta, Burgosko aldetik Peña Alta tontorrera doan bide baten aztarnetatik gora ibiliko gara pinuen artean (1.022m.). Tontorra ezkerreko aldean utziko dugu. La Risca de San Pedro mendilerroko lehenengo harkaitz eremuak zeharkatu eta geroago Muniteri mendiko probintziako erpinera iritsiko gara. Handik berriro topatuko dugu probintziako muga bereizten duen alanbre-hesia. (958 m) 1,8 Km. (*Gaubea haranaren ikuspegi paregabea*).

Alanbre-hesitik jarraituko dugu, Burgosko aldetik, ate metaliko bateraino, eta bertatik pasako gara. Orain mendilerroaren gainetik ibiliko gara, lehenengo urmaelerraino, eta berriro jarraituko dugu alanbre-hesitik. (903 m) 4,1 km.

Erkametzak, arteak eta ipuruak ikusiko ditugu basoan, eta horiek direla eta zailagoa da handik ibiltzea. Aurrerago, San Sebastian muinoaren tontorraren ertzetik pasako gara (944 m), baita Tejadilla tontorretik ere (931m), biak Villalambros de Losa herriaren gainean daudela. Muino batera jaitsi eta Fresno de Losarako jaitsiera utziz, Peñafresno (947 m) eta Risca de San Pedro (981m) tontorretara igoko gara. 10,9 km.

Beherantz jarraituko dugu probintziaren mugari jarraituz eta urmael handi bat topatuko dugu. Eskuinetatik pasako gara urmaelaren ertzetik eta leunki gorantz doan pista batetik jarraituko dugu Hozalla mendixkaraino (909 m), han, gailu bitxi bat ikusiko dugu. Gorantz doan pista batetik jarraituko dugu suebaki batetik gorantz doan muga berriro aurkitu arte, pistatik jarraitu eta Peña Risca (1.008 m) eta Peñalta (986 m) tontorretara iritsiko gara. 14,2 km. (*Ikuspegi aparta, Losa haran osoa eta Urduñako mendatea aurrean ditugula*).

Beherantz jaitsiko gara urmael txiki batera iritsi arte eta eskuinetik, artadi batean sartu eta bide bat hartuko dugu Mioma muinoraino (822 m) jaisten den xenda bat hartuko dugu. Orain pista ezkerretik hartuko dugu, eta Arabako Astuliz (663 m) herrixkara iritsiko gara. 21,0 km.

Ezkerretik jarraituko dugu A-4330 errepidetik eta handik 2,7 km-ra, Osmo herrira iritsiko gara eta hortxe bukatzen da etapa. (568 m). 23,7 km.

